

Animalien gaia aurrera eramateko, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzaz (POI) baliatuko gara. Metodologia honetan ikasleek rol aktibo bat hartzen dute, ikasteko motibazioa sustatzen delako. Metodoa gehienetan taldeka egiten den proiektu bat da.

Proiektuen bidezko metodologiaz baliatuz, curriculumaren barneko oinarrizko kompetentziak landuko ditugu. Metodologia honi esker, ikasleek pentsamendu kritikoa garatuko dute eta jasotako informazioa erabiltzen hasiko dira. Gainera talde lanean lan egiten ikasiko dute eta haien autonomia bultzatuko da.

Hortaz aparte, proiektuen bidezko ikaskuntzaren helburua ikasleen interesetatik, esperientzietatik eta ezagutzetatik abiatzea da. Horregatik, irakasleak normalean duen zuzentzeko papera alde batera utziko du eta laguntzaile gisa arituko da.